



# NOIZ ARTE?

Agerpen hau, ez da, anbulategiaren lanak hasi direla azaltzeko, bai zik beti bezela eta berriro ere, naiz eta guk ez horrela nahi, salatu behar dugu lan hauek jasan duten atzerapena. Lehen esan ziguten 81'eko presupuestoan sartu egingo zutela eta azkenean 82'eko presupuestoan sartu dute.

Zein dira atzerapen honen auduradunak? Urte honen uztaillaren hogeitabian, Markel Izagirre, Donostiko alkate funtzio betetzen zituela, esan zigun al zuen denbora gutxienean konponduko zuela gure arazoa, edo abuztuaren hogeitabata baino lehen behintzat. INSALUD'ok eskatzen zuen bezela, 81'eko presupuestoan sartzeko edo beztela bera egingo zela arduradun.

Baino naiz eta egunkarietan Udalotxeak agintz eta deklarazio asko egin, azaroaren hamalaurarte Udalotxeak ez zuen inolako lurrik eskeindu, eta egun horretan Sarasólako Granjan lurrak eskeini zituen naiz eta hipoteka bat egon lur hauen gain, hipoteka hau Osa Konstruktoreen izenean zegoen.

Egoera honen aurrean salatu nahi dugu Udalotxearen aktuaioa, eta salatzen diogu erresponsable bereziena bezela, zeren bere patxadengatik ez dute sartu anbulategia 81'eko presupuestoan, naiz eta bi urte pasa lurren arazoa azaldu zen egunetik gaur arte.

Ezin dugu arazo sanitarioaren gain atzerapen gehiagorik utzi, ez ezik Udalotxearen aldetik, eta gutxiago Osa Bezelako tipoaren aldetik; hemen egin ditzten etxeekin diru pilo bat egin dute, eta erain gure beharrek nahi dute ere, bere boltxikoa bete.

Zor egin behar dugu, zai egon? GARBI ERAKUTSI DIGUTE, ZERBAIT AURERATU BADUGU, HORI IZANDU DELA GUK EGIN DITUGUN EKINTZEN BABESEAN. HORREGATIK PENSATZEN DUGU EZIN GARELA GEHIAGO ZAI EGON, BEZTELA BERRIZ ERE AHAZTU EGINGO DITUZTE GURE ARAZOAK.

Kalera atera behar dugu eta Udalotxe, Eusko Jaurlaritza eta Insaludi exigitu behar diegu, LANAK HASTEKO 82'AREN URTAPRILAN.

ETOR ZAITEZTE DANOK IGANDEA 29'AN EGUERDIKO 12'ETAN ALTZAKO ENPARANTZAN EGINGO DUGUN MANIFESTAPENARA.

EZ ATZERAPEN GEHIAGORIK !! ANBULATEGIAREN LANAK 82'KO URTARRILEAN HASI BEHAR DUTE !!

ANBULATEGIA DENONTZAT DA, ETOR ZAITEZ !!

1981 AZAROAK 18

ALTZA, HERRERA ETA LARRATXOKO AUZO ELKARTEAK.